

**EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA (EUDEL)
ETA EUSKALTZAINDIA/R.A.L.V./A.L.B.**

Convenio / Hitzarmena

**EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA (EUDEL) ETA
EUSKALTZAINDIA/R.A.L.V/J.A.L.B.**

HITZARMENA

*José María González Zorrilla jauna,
EUDELko elkarteburua*

CONVENIO ENTRE EUDEL Y EUSKALTZAINDIA PARA LA NORMALIZACION DE LAS DENOMINACIONES DE ENTIDADES LOCALES, BARRIOS Y CALLES DE LA COMUNIDAD AUTONOMA VASCA

Salón de Actos de EUDEL

Bilbao, 15 de marzo 1999

Egun on guztioi:

Dakizuenéz, gaur bildu gaituen *Hitzarmena* Euskadiko Udalen Elkarreak eta Euskalkaindiak elkarrekin hartutako inizatiba baten emaitza da. *Hitzarmen* honek Euskal Autonomia Erkidegoko herri, auzo eta kaleen izenen normalizazioa izango du helburu nagusi.

* * *

Como sabéis, hoy la Asociación de Municipios Vascos, EUDEL, y la Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, van a proceder a la firma de un *Convenio de colaboración* entre ambas instituciones. El objeto del mismo es la creación de una base de datos que permita regularizar y normalizar los nombres de todos nuestros Municipios, barrios y calles, atendiendo a la historia y tradición que dieron lugar a sus respectivas denominaciones.

Esta iniciativa se viene a sumar a anteriores acciones en el mismo sentido, llevadas a cabo en 1986 y 1994 por la Secretaría General de Política Lingüística del Gobierno Vasco, y pretende actualizar y completar ese trabajo.

Desde la perspectiva de EUDEL, el *Convenio* que hoy firmamos, la labor de investigación subsiguiente, y la configuración de una base de datos de estas características supone un servicio más a nuestros municipios.

El proceso de normalización de una lengua, como el que el euskera está experimentando, mantiene múltiples vertientes de trabajo. Y una de las más importantes es la que hoy emprendemos.

La discriminación legal y social de una lengua, que hasta la llegada de la democracia no contaba con el reconocimiento de los poderes públicos, representó durante largo tiempo una oportunidad para el olvido, y facilitó que se difuminara, también desde el punto de vista toponímico, esa valiosa herencia cultural.

Desde el punto de vista de EUDEL, es ésta una oportunidad para la recuperación de ese legado y para su actualización dentro de una sociedad moderna donde al fin la lengua vasca ve reconocido el lugar que se merece en el seno de su propia tierra.

Para llevar adelante ese objetivo, EUDEL aporta una importante dotación económica, y Euskaltzaindia, por su parte, una contrastada competencia científica, asentada en muchas décadas de trabajo e investigación. Este esfuerzo conjunto permitirá proporcionar a nuestros ayuntamientos un instrumento para la fijación definitiva de las denominaciones de sus municipios, de sus barrios y de sus calles más tradicionales. La nueva base de datos se encontrará en todo momento a disposición de las entidades locales.

Quisiera resaltar incluso el valor de trabajos como el que vamos a emprender desde una perspectiva más personal. En zonas como aquella de la que procedo, la Margen Izquierda de Bizkaia, el euskera dejó una difusa memoria toponímica que queremos y debemos recuperar. Hacerlo así supone reconstituir también una parte irrenunciable de nuestra propia historia local, lo cual constituye un referente imprescindible en la definición de nuestra identidad colectiva.

Se trata, sin duda, de una deuda que tenemos con nuestro propio pasado, con la memoria, íntima y entrañable, de nuestros pueblos y ciudades, pero también, y quizás sobre todo, una obligación moral de cara al futuro: la necesidad de entregar a las futuras generaciones el referente claro de su historia y de sus más antiguas tradiciones.

Eskerrik asko.

EUDEL-EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO HITZARMENA SINATZEA

Bilbon, 1999-III-15

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

José Maria Gonzalez Zorrilla, EUDEL-eko presidente jauna,
Josune Ariztondo, Hizkuntza Politikarako sailburuorde anderea,
kazetari jaun- andereak. Agur.

Eskerrak bihurtu nahi dizkizut EUDEL-eko zuzendari jauna, orain bertan eskaini dizkiguzun hitz goxo eta harrera onarengatik. Ez ditut ahanztiko, Josune Ariztondo anderea, Euskaltzaindiari opa dizkiozun laudorioak. Erran duzun bezala, Euskaltzaindia lanean ari da, politikaren eta ideologiaren ginetik hizkuntzaren alde, hizkuntzaren normatibizazioaren esparruan. Herriaren zerbitzuan ari da, eta legeak aitortzen dizkion alor eta esparruetan aholkuak ematen dizkie Herri Aginteei hala eskatzen dutenean. Hizkuntzaren batasunari dagokionez, Akademiaren erabakiak Euskal Herri osoarentzat dira, nahiz Administrazio ezberdinetan antolatua izan: Euskal Autonomia Erkideagoa, Nafarroako Foru Erkidegoa eta Iparraldea.

Euskaltzaindiko batzordeetan garrantzitsuenetakoa dugu Onomastika. Denbora luzez ari da toponomia aztertzen, bai bertakoa eta baita Euskal Herriatik kanpokoa ere (munduko estatu-izenak, ibaiak, etab.). Hemen zaudete komunikabideetakoak: sarritan erabili behar dituzue euskaraz herri-izenak, kanpoko hirien izenak, auzo-izenak, eta norbaitek esan behar du nola diren horien izenak euskaraz. Lan hori Euskaltzaindiak egiten du. Aurrean ditut Henrike Knörr, Onomastika batzordeburua, Mikel Gorrotxategi, batzorde-idazkaria eta José Luis Lizundia, batzordekidea, eta horien ia eguneroko jardunean dago Onomastikari buruz lan egin beharra: ikerketak egitea, halako edo bestelako herri-aginteei eskatutako irizpena prestatzea, hiritarren kontsultak erantzutea, etab.

Gaur EUDEL-ek eta Euskaltzaindiak sinatu dugun *hitzarmena*, elkarrekin lanean arituko garen denbora luze eta emankor baten hasiera besterik ez izatea nahi nuke. Euskaltzaindiak, jarri zaizkion baliabideekin, herri-izenak, kale-ize-

nak, auzo-izenak ikertuko ditu, eta ahal den neurrian horien guztientzako irizpide bateratuak jarriko ditu, horrela lan hori udal guztientzat baliagarria izan dadin, eta egingo lanaren emaitza EUDEL-i ere emanen dio.

Amaitzeko, berriz ere mila esker EUDEL-eko presidente jaunari, *Hitzar-men* honen bidez Euskaltzaindiaren esku jartzen dituen baliabideengatik.

1999ko HITZARMENA, EUSKADIKO UDALEN ELKARTEAREN (EUDEL) ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKOA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HERRI, AUZO ETA KALEEN IZENEN NORMALIZAZIORAKO

BILDURIK

Batetik,

JOSE MARIA GONZALEZ ZORRILLA jauna, EUDELeke Elkarteburua

Bestetik,

JEAN HARITSCHELHAR DUHALDE jaun txit argia, euskaltzainburua

Alderdi biek aitortzen diote elkarri agiri hau sinatzeko ahalmena, hori dela eta, honako hau

ADERAZI DUTE:

a) 1986an Euskaltzaindiak Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien izenen zerrenda egin zuen (*Euskal Herriko Autonomia Elkarteko Herrien Izenak*). Lan hori Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak argitaratu zuen eta, guztira, 1.225 biztanle-entitateren izenak zeuden bertan bilduta.

b) 1994an Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzak (HPS) Euskaltzaindiaren zerrenda oinarritzat hartuta eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalen laguntzaz beste zerrenda bat prestatu zuen, osatua eta udalen borondatea jasotzen zuena. Trebiñoko izenak gehitu ondoren, 1.368 izenez osatutako zerrenda burutu zen.

c) 12 urte baino gehiago pasatu dira Euskaltzaindiak prestatutako zerrenda hura argitaratu zenetik eta, hori dela eta, zerrenda hori berriro aztertu, zuzendu eta eguneratzeari egoki deritzogu.

d) Euskaltzaindiak eta Herri Aginteek 1999rako sinatu duten Protokolo erantsian honako hau adierazi dute gai honi buruz: "Bestalde, onomastika alorrean, Euskaltzaindiak eta EUDELeke lankidetzaz hitzarmena sinatu ahal izango dute, baldintza hauek bete beharko dituztelarik:

1. Hitzarmena sinatu eta jarraipen batzorde bat izendatuko da.
2. Batzordea erakunde hauetako bina kidez osatua izango da: Euskaltzaindia, EUDEL eta HPS.
3. Batzorde horren eginkizuna Euskaltzaindiak aurkeztutako lanari eta diru-kontuei buruzko txostenak jasotzea eta aztertzea izango da.
4. Herri Aginteeek lankidetzaz hitzarmenaren berri izango dute eta buruzten ari diren lanei buruzko informazioa jasoko dute.
5. Euskaltzaindiak hitzarmenean jasotako lan-programen emaitzak HPSk duen datutegian bilduko ditu.
6. Dirulaguntzari dagokionez, Herri Aginteeek onomastika alorreko lanak burutzeko jarritako bost miloiko diru-kopuruaz gain, EUDELek beste bost miloiko diru-ekarpena egingo du 1999. urtean.
7. Horretaz gain, Euskaltzaindiak hitzarmenak egin ahal izango ditu, onomastika alorrean, udalekin bertako lan zehatzak burutzeko. Horrelakoetan, hementxo metodologia bera jarraituko da eta emaitzak HPSren datutegian jasoko dira.
8. Euskaltzaindiak berehala ekin beharko lioke bere lantaldea finkatzeari”.

Esandako guztia kontuan hartuta, alderdi biok hitzarmen honetarako baldintza hauek ezartzea erabaki dugu:

BALDINTZAK

1. Helburua

Hitzarmen honen helburu nagusia datu-basea egitea da, eta datu-base hori Hizkuntza Politikarako Sailordetzak EAeko toponimia normalizatzeko jadanik garaturik duen datu-basean txertatuko da. Horretarako honakoak egingo dira:

- a) Euskaltzaindiak toponimiari buruz gaurdaino egin dituen lanen inbentarioa egin.
- b) *Euskal Autonomia Erkidegoko Biztanle-entitateen Izendegia* argitalpena aztertu, zuzendu, bateratu eta eguneratu.
- c) Kale-izendegietan agertzen diren arazo nagusiak identifikatu, aztertu eta irtenbideak eskaini.
- d) HPSk duen toponimia datutegian toponimoen normalizaziorako proposamena egiteko erabili diren hizkuntza irizpideak aztertzen hasi.

2. Baliabideak

Lan hori egiteko Euskaltzaindiak bere baliabideak erabiliko ditu, bai materialak bai giza baliabideak, eta gaur egun HPSn dagoen datu-basea ere erabiliko du.

3. Epea

Hitzarmen hau urtebete egongo da indarrean, 1999ko urtarrilaren batean hasi eta abenduaren hogeita hamaikara arte. Hurrengo ekitaldietarako hitzarmenaren epea luzatu edo edukiak zabaltzeko beharrezkoa izango da bi alderdiok berariazko onespena ematea.

4. Finantziazioa

a) EUDELEk lan horretarako gehienez eta guztira BOST MILIOI PEZETAKO (5.000.000 PTA) dirulaguntza emateko konpromisua hartzen du.

b) EUDELEk lau zatitan emango du dirulaguntza hori, bakoitzean MILIOI BAT BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAR MILA PEZETA (1.250.000 PTA). Lehenengo zatia 1999ko martxoaren 31n emango du, bigarrena 1999ko ekainaren 30ean, hirugarrena irailaren 30ean eta laugarrena 1999ko abenduaren 31n.

c) Dirulaguntza horiek eskuratu ahal izateko Euskaltzaindiak lanaren goerari buruzko errendapen-txostena aurkeztuko dio EUDELi hiruhilero.

5. Jarraipen batzordea

a) Bi alderdiek Jarraipen batzordea eratzea erabaki dute. Batzordeak sei kide izango ditu eta horien zeregina hitzarmen honetan zehaztutako jardueraplana gainbegiratzea, kontrolatzea, zuzentzea eta horri buruzko akordioak hartzea izango da.

b) Horretarako Euskaltzaindiak, EUDELEk eta HPSk bina kide izendatuko dituzte.

6. Zabalkundea

a) Euskaltzaindiak datu-basearen ale bat EUDELi emango dio.

b) EUDELEk hitzarmen hau bere elkartekideen artean zabaltzeko konpromisua hartzen du.

c) Datu-basea erabiltzaile estrategikoen esku jarriko da. Hitzarmena sinatu duten alderdiek jabetza-eskubide berak izango dituzte.

Edozelan ere, Jarraipen batzordeak datu-base honen erabilgarritasunari buruzko proposamena egin dezake, datu-basea behin betiko bukatuta egon baino lehen.


7. Arazoak

Jarraipen batzordearen zeregina izango da bi alderdien artean sortutako edozein arazo aztertzea eta konpontzea.

Bi alderdiak ados daude adierazitako guztiarekin, eta agiri hau izenpetu dute.

Bilbon 1999ko martxoaren 15ean.

JOSE MARIA GONZALEZ
ZORRILLA,
EUDELeko ELKARTEBURUA



JEAN HARITSCHELHAR
DUHALDE,
EUSKALTZAINBURUA

